



## Euskarazko sorkuntza saritu dute

Bizkaiko Foru Aldundiak atzo banatu zituen Lauaxeta sariak, euskarazko sorkuntza aitortzen dutenak. Iaz ezin izan zuten zehazki saririk eman, aurten bi ematea erabaki du aldundiak; bat, Xabier Amuriza bertsolari eta idazleari, eta bestea, Gontzal Mendibil, Mikel Urdangarin, Zea Mays eta Gatibu musika bakarleri eta taldeei. Poesiako saria Leire Bilbao eta Jon Ander Urkiagarentzat izan da, eta ikus-entzunezkoetakoa, Iñaki Alforja eta Ivan Toledorentzat, *Bolante baten historia* dokumentalagatik. JON URBE / FOKU

## Mikel Alvarez Sarriegik irabazi du XXI. Agustín Zubikarai literatura saria

**LITERATURA** • Nobela beltzaren eta umore tonuaren artean dabilen eleberrirako proiektu batekin (*Euskalia*) irabazi du Mikel Alvarez Sarriegik (Beasain, Gipuzkoa, 1982) XXI. Agustín Zubikarai saria. Aurkikuntza harrigarri batzuei esker, euskaldunak unibertsoko potentzia nagusi bihurtuko dira, eta Euskalia deituko diote galaxiako erresuma horri. Denera, hogeitau hamar urteko diraren sariketara, eta Leire Bilbao, Xabier Mendigurenek eta Ana Urkizak osaturiko epaimahaiak hautatu du horien artean Alvarez enari ematea saria. Abenduaren 3an emango diote, Ondarroako Kofradia Zaharrean (Bizkaia).

## Amaia Telleriak Zilarrezko Euskadi saria jaso du

**LITERATURA** • Gipuzkoako Liburudenden Elkarteak banatzen duen Zilarrezko Euskadi saria jaso zuen, atzo, Donostian egindako ekitaldian. *Haize lekuak* (Alberdania) eleberrigatik saritu dute Telleria. Gaztelaniazko saria, berriz, Jon Bilbaori eman zioten, *Basilisco* eleberrigatik (Impedimenta). Eguerdian jaso zizuten bi idazleek sariak, eta arratsaldean, berriz, topaketa bat izan zuten irakurleekin, Donostiako udal liburutegiaren sotoan.



Bilbao eta Telleria. A. CANELLADA / FOKU

**DA!**

# berria Durangoko Azokan

Abenduaren 3tik 7ra, BERRIaren produktuak salgai azokaren webgunean: [Durangokoazoka.eus/denda](http://Durangokoazoka.eus/denda)

aleka bilduma **16,50 €**



2022ko egutegia **6 €**



Egunkaria, gizarte zibilarren arrakasta **25 €**



Izan ala ez izen? **20 €**



Elkano euskal planisferioa **25 €**

2022ko agendak



BERRIaren ohiko agenda Asteko ikuspegia **13 €**



Ane Pikazak egindako irudiarekin azala duen agenda Eguneko ikuspegia **13 €**



Ane Pikazak egindako irudiarekin azala duen agenda Asteko ikuspegia **14 €**



Euskal Herria: kartografian eta testigantza historikoetan **12 €**



Hitz beste 2003-2017 **15 €**

Abenduaren 4tik 8ra, aurrez aurre, Landako gunean (Artekale 25-26)

**berria**

zuk badakizulako